

DESIRAGARRIA LITZAKE MUGARIK GABEKO MUNDUA?

Duela aste gutxi, Gabonetan, Bolognara egin nuen bidaia. Lehen aldia izan zen Espainiar estatuko mugak gainditzen nituela, eta zirrarragarria izan zen. *Lehen aldien* zirrarez haratago, berezia izan zen ikustea beste mundu bat, beste bizitzeko era bat, beste hizkuntza bat. Hori kontuan hartuta Europako mugen barnean jarraitzen nuela. Zer gertatzen ote da bestaldean? Zer ez ote da gertatzen? Kontuak kontu, Bolognatik nembilela, Gabonetako argiak piztu ziren, europar hiriburu guztietan bezalaxe. Baina han ikusi nituenak bereziak ziren. Alde Zaharreko kaletxo batean sartzean, John Lenonen 'Imagine' kantua irakurgai aurkitu nuen neure buruaren gainean; argi zuriz, distiratsu. Klean aurrera nindoan heinean, hain ezaguna egiten zitzaidan letra abesten nuen nire barruentzat. Nik bezala egingo zuten ziurrenik ehunka gaztek, ehunka, frantsesek, ehunka amerikarrek, ehunka aitona-amonek; milaka mundutarrek. Baina, ziur, gutako inork ez ziola behar bezala erreparatu Johnen mezuari.

Imajinatzeko ariketa proposatzen digu John Lenonek bere kantuan. Irudika dezagun erlijiorik gabeko mundu bat, jabetza gabekoa, gose eta herrialde gabekoa. Mundu bat zeinean jendea bakean bizi den eta dena partekatzen duten. Finean, ematen du muga guzti horiek gainditzeak nolabaiteko askatasuna ekarriko duela, betiere, denok ideia horrekin bat egiten badugu. Bere esanak analizatzen hasita, bat nator elkarrekin mundu honen oinarriak alda ditzakegula, eta bakean bizi ahal izateko oinarri berri batzuk ezer ditzakegula. Baina, denok bat egin behar badugu horretarako, ez al genituzke pentsatzeko askatasunaren gainean muga berriak ezarriko? Ez al genuke 'Sapere aude' baliogabetuko? Esan nahi dut, lehen begi bistan Johnen proposamena atsegina egin zait niri ere, azkenean, nork ez du bakean bizi nahi? Baina uste baino gai konplexuagoa dela esango nuke; mugak oso kontzeptu abstraktuak dira, eta oso modu ezberdinetan senti ditzakegu.

Putzu sakonagoetan sartzan hasi aurretik: zer da muga bat? 'Frontera' esan ezker, segituan datorkit burura; harresi bat, zubi bat, poliziak eta beste aldera pasatu ahal izateko dokumentazioen beharra. Baina, muga ordea, muga, 'frontera' baino gehiago da. Mugek dimentsio handiagoa dute nire aburuz, esparru gehiagotan daude, forma ezberdinak hartzen dituztelarik. Baita helburuak ere. Esaterako, muga batek banatzeko balio dezake, baita sailkatzeko, kalifikatzeko, baztertzeko, goraiatzeko, eta identifikatua sentitzeko Ondorioz, modu oso ezberdinetan sentitzen ditugu. Esaterako, Nigeriatik Europara etorri nahi duen horrentzat muga (fisikoa) madarikazio bat izango da. Aldiz, nerabezaroan dagoen pertsona ez-bitarrak agian, eskertuko du zerbaitekin

identifikatua sentitzea, eta beraz, muga (mental) batzuen barruan sartzea edo beste batzuetatik ateratzea.

Honen harira, gogoan dut behin Joseba Sarrionandiak esan ziguna elkarteratze batean, mugen inguruan hizketan geundela. Berak zioen, muga ('frontera') denak mentalak direla; eraikiak, alegia. Nork marraztu ote ditu mapetan ikusten ditugun marrak? Baina halere, esaten zigun ohartzen dela mugak mentalak izan arren, sekulako indarra dutela. Bestela, nola iristen zaigu lehenago Cadizen gertatzen den zerbait, Maulen gertatzen ari dena baino? Hortaz, muga ('fronterak') badira nahiko objektiboak, eta egunero-egunero prentsak, poliziak eta estatuak gogoratu egiten digu. Baina, lehengoari helduz, zer esan dezakegu muga etikoen inguruan? Muga sentimentalen inguruan? Klaustroko moja batenak eta nireak zeharo ezberdinak dira. Enpresari batenak eta langile esplotatuarenak ere, eta ziurrenik Matematikako irakaslearenak eta Filosofiakoarenak ere.

Beraz, argi dago muga batzuk denontzat berdinak direla, baina, beste asko oso interpretagarriak direla, eta norberaren izatearen eta idealen arabekoak izan daitezkeela. Orduan, nola lortuko dugu denok bat egitea? Nola lortuko dugu Johnek proposatzen diguna?

Hortaz haratago joanik, nik dudan jartzen dut muga horiek abolitu behar izatea. Bada, ez baditugu muga batzuk jartzen, zer egongo litzake? Zer litzake beste gauza askoren artean 'frontera' gabeko, moralik gabeko eta errespeturik gabeko mundu bat? Izan ere, mugak negatiboak zein positiboak izan daitezke. Esaterako, nik jar baditzaket nire gorputzaren inguruan mugak; nork ukitu, noiz, non, nola... Hori ongarria da nire ustetan. Baina, ni emakume izanik, eta nire neba gizona, bakoitzari sartu gaituzten kaxa itxi eta karratuetara mugatzea aldiz, arriskutsua da. Baina are arriskutsuagoa iruditzen zait oinarrizko muga batzuk ez jartzea; ongizate minimoa lortzeko mugak ezinbestekoak dira. Bizikidetzarako, alegia. Gero, nork erabaki behar dituen muga horiek? Ba hori ez daukat hain garbi, baina, esango nuke harremanen kasuan, bakoitzak ezartzen dituela berean mugak, ezta?

Gainera, muga guztiak gainditu nahi izanik ere, ezinezkoa dela uste dut. Edonork muga bat gainditzen duenean, beste bat topatuko du. Gizarte honetan ezinezkoa da mugatu edo izendatu, gabe bizitzea. Noski, onerako zein txarrerako ere izan daiteke. Baina halere, lehen esan dudan bezala, elkarbizitzarako mugak jarri behar dira argi; norbanako bezala batzuetan, kolektiboki besteetan.

NAN: 73041566Y

Guzti hau esanda, ondorioztatzen dut, hala iruditu ez arren, mugek on egiteko ere balio dutela. Orduan, noiz bilakatzen dira mugak, 'fronterak' edo dena delakoak zerbait negatiboak guretzat? Nola da hori posible, guk sortu baditugu?

Hor dago gakoa nire ustetan. Esango nuke argi dudala, muga batzuk beharrezkoak ditugula, eta kendu nahiko nituzkeenak zailak direla kentzeko, ideal oso ezberdinak baititugu munduko herritar garenok. Beraz, mugarik gabeko mundu hori ez da desiragarria niretzat, ez da erreala. Eta halere, uste baino korapilatsuagoa iruditzen zait.

Horregatik, mugak beharrezkoak direlakoan berresten naiz. Ez dut mugarik gabeko mundu batean sinesten. Hau da, imajinatu, poliziarik gabeko mundu bat. Benetako kaosa litzake ziurrenik; horrexegatik, gehiago ala gutxiago gustatu, bizikidetzaren minimorako polizia batzuk beharrezkoak dira. Bada, hor dago koska; polizia eremuan. Hots, mugetara itzuliz, uste dut kontua dela muga horiek zertarako erabiltzen ditugun. Hasieran esan bezala, muga bat klasifikatzeko, banatzeko, baztertzeko edo identifikatzeko erabil dezakegu, besteak beste. Egin dezagun ba proba! Saia gaitezen egunerokoan zeharkatzen ditugun muga guzti horietaz jabetzen, eta hauen funtzioaz hausnartzen. Muga horien baitan gure posizioa zein den, eta zein izan daitekeen denontzat positiboagoa izan dadin. Eta orduan egin dezakegu aldaketa; agian horrela lortuko dugu Johnnek zioen bezala bizimodu baketsuago bat izatea. Bai nik, bai Bolonian zeuden turista guztiek, etxegabe guztiek, nereabe eta haur guztiek eta baita Nigeriatik datozenek ere.

NAN: 73041566Y